

URTEKARIA

2021
2022



PROBENTZIO SAIOAK

Ikasturte berriarekin batera, probentzio saioak izan ziren bi Ikastoletan. Ikasleek zein irakasleek, beraien arteko ezagutza, taldearen kohesioa, ... landu genituen. Gelakideak eta irakaslea ezagutu eta berriz ere taldea martxan hasteko jolas eta dinamika ezberdinak burutu zituzten. HHn jolas dinamikak, jolas libreari garrantzia emanez eta LH eta DBHko maila guztietan irteerak burutu ziren eta jolasaren bitartez elkarrekin ikasturte osoan aritzeko lehenengo urratsak eman nahi izan genituen.




ESKOLA KIROLA LH3-4 ETA 6

Bertan Ikastolako Kirol Eskola eta Kirol eskaintzarako deialdia zabaldu zitzaizkien familiei. Lehengoa, LH3-tik LH6 bitarteko ikasleentzat eta bigarrena, DBHkoentzat. Ikastolako ikasleek taldean kirola egitea eta baita, aukera izanez gero, hain ezagunak ez diren modalitateetan ere lehenengo urratsak ematea (surf, ping-pong, xake, hipika, ...) dugu helburu. Animatu eta izena eman!!! Epea urriaren 3an bukatu zen. Izen ematea ondo joan zen eta ikasturtean zehar hainbat kirol martxan jarri dira.

BASAGAIN BISITAK

ANOETAKO HERRI IKASTOLA ETA IRURAKO IKASTOLA

Ikasturte hasieran LH3, LH 5 eta 6 eta DBHleko ikasleek aukera izan zuten Basagaingo herri gotortuan egiten ari diren indusketa lanak bisitatzeko. ikasleek bertan lanean ari zirenekin zuzenean egon eta beraiek esandakoak entzun zituzten.




AHOZKOTASUNA HHN

Aurten ere ikasturte hasieran Ikastolen Elkartetik formazioa jaso genuen. Ahozkotasanaren garrantzia azpimarratu zuten eta hori lantzeko estrategia desberdinek eskaini zizkiguten.

GURASO BILERAK

Urtero legez irailaren bukaera urriaren hasieran guraso bilerak burutu ziren. Bertan urteko helburuak, irteerak, lan dinamika eta ikasturtearen nondik-norakoak azaldu zitzaizkien bertara gerturatu ziren guztiei. Lerro hauetatik etorri ziren guztiei gure eskerrak eman azaldutako interesarengatik.

U RR IA



HH1etik LH4ra bitarte (Irurako Ikastolan Haur Hezkuntzan) ezarri da Baso Eskolaren baliabide pedagogikoa. Aurreko ikasturtean hainbat pilotaje eta irteera egin eta gero, hezkuntza-eredu horri tokia egin zaio bi Ikastoletan.

Gure ikasleek basoan edo ingurune natural batean jolastu, ikertu eta ikasten dute eta irakasleek behatzaile papera jokatzen dute bertan, haurrak lagunduz baina ez gidatuz. Haurraren garapen integralean eragin nahi izateaz gain, natura eta bioaniztasunarekiko kontzientzia hartzen laguntzea dira helburu. Berriro ere, bi udalei eskerrak eman proiektu honekiko azaldutako babesari dela eta.



ERRIGORA KANPAINAREKIN BAT EGIN GENUEN


Urriaren 23an hasi zen eta azaroaren 11ra arte luzatu zen "Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka" kanpainaren 2021eko edizioa. Urtero bezala, data horien artean Nafarroa hegoaldeko produktu bikainez osatutako saskiak eskatu ahal izan ziren. Ikasturte honetako kanpainan 3 saski izan ziren aukeran: beltza, berdea (ekologikoa) eta zuria. Saski horiek erostean, hartu ez ezik, eman ere egin genuen. Izan ere, saskiek dakartzaten produktuez gozatzear gain bertako ekoizpenari bultzada eman, eta bestetik, saski bakoitzaren balioaren %25 Nafarroa hegoaldeko eta erdialdeko euskalgintzari eman zitzaion.



KIVA IKASTOLA GARĀ!

Urriaren 8an, Irurako Ikastolan KIVA EGU-NA ospatu genuen. Urtero bezala, egunean zehar ekintza ezberdinak egin genituen eta urtean zehar geletan egingo direnei hasiera eman zitzaion. Irurako [bideoa](#) ikusgai dagoneko.

Anoetako Herri Ikastolak azaroaren 17a aukeratu zuen bere KIVA EGUNA ospatzeko. Honetan, KiVa arauak erreparatzeak eta idazteak izan zuen protagonismo berezia. Gure arteko elkarbizitzan denok dugu gure aletxoak jartzeko!



LEHEN HEZKUNTZAKO IKASLEAK MENDI IR- TEERAN

Eguraldi ona aprobetxatuz, ikasturte hasierako mendi irteera burutu zuten Lehen Hezkuntzako ikasleek. Goiza ederki pasa zuten eta lagun taldearekin naturaz disfrutatzeak aukera paregabea izan zen.



SEXUNE IKASTAROA


Irurako Ikastolak eta Anoetako Herri Ikastolak ibilbide bat egin du Sexune sexologia eta emakume eta gizonen gaineko berdintasunean oinarritutako Elkartearekin. Azken urte hauetan ikasle, guraso eta irakasleak formazio desberdinak jasotzen ari dira. Sexu-heziketa egoki batek, sexu-identitatearen eraikuntzaren ezagupenak eta sexuen arteko harremanak, pertsonen garapen integrala ahalbideratzen lagunduko du. Ikasturte honetan ere lanketa horrekin jarraitu dugu eta horretarako formazio saioak seme-alaben adinaren arabera eskaini dira, adin bakoitzak bere kezak eta ezaugarriak dituelako: 0-7 urte bitarteko gurasoentzat alde batetik, 8-12 urtekoentzat, bestetik. Ikasleekin etapa ezberdinetan ere lanketa egin da. Irakasleek berriz, ikasturte osoan zehar jaso dituzte formazio saioak.





GAU BELTZA

Azaroaren bueltan GAU BELTZA ospatu genuen bi ikastoletan. Gurea den ohitura zaharra berreskuratzeko asmoz aritu ginen. Hainbat ekintza burutu ziren egunean zehar geletan: abestiak, kantuak, marrazkien margoketa eta eskulan bereziak, kalabaza purea eta bizkotxo errezetak, egunaren aurkezpena,... besteak beste.



EKO GUNERA BISITA HH2-3

Irurako Ikastolako HH2-3ko ikaslarak azaroan izan ziren EKO GUNEan eta Anoetako HH1eko ikasleak abenduan. Bertan, lurra eta ilar haziak prestatu, letxuga landareak landatu eta ureztatu, artoa aletu, txikitu eta oiloei eman. Bertan gozatzeko aukera izan zuten jolasean eta zilipurdika, ederki pasa zuten!!! Argazkiak [hemen](#)



EMAKUMEAREN INDARKERIAREN AURKAKO EGUNA

Azaroaren 25 ean, emakumeen aurkako indarkeriaren Nazioarteko Eguna ospatu genuen Bi Ikastoletan. Ikasleekin egun honen jatorriaz hitz egin eta adinari egokitutako dinamikak egin zituzten, PAUSSOA dinamikak proposatutako dinamikak aurrera eramane ziren, ...zaharrenek VO-LAR dokumentala ikusi zuten. [Bideoa](#)



TOPIC-ERA IRTEERA, TXOTXONGILOAK ZAIN!!

Azaroaren 26an, LH3, LH4, LH5 eta LH6ko ikasleak Tolosara joan ziren Titijai txotxongilo jaialdira. Eguraldiak asko lagundu ez zuen arren, pozik eta gogotsu agertu ziren urtero egiten den irteera honetara. Ondo pasa eta asko disfrutatzen duten ekintza bat izaten da hau.





HH3KO IKASLEEK GABONAK ETA KONTSUMOA GAIAK UZTARTU ZITUZTEN

Abenduaren 14an, HH3ko ikasleek Tolosaldeako Ingurumen Zentrukoen bisita izan zuten. Gabonak eta Kontsumoa izenburupean urtero egiten dugun tailerra burutu zuten. Ikasleek material berziklatuarekin eskulan politak egin zituzten eta gustura aritu ziren katalajoak sortuz.



ABENDUAK 3, EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Urtero bezala, abenduaren 3an bi ikastoletan EUSKARAREN EGUNA ospatu genuen. Pregoiak, jolasak, herri kirolak, euskal musikak, Argitxoren bisita eta margoketa saioek osatu zuten egun berezi hau. Eta bukatzeko gure ikasle ohien Nerea Alias eta Jon Fernandezek bititak jaso genituen. [bideoa](#) eta [argazkiak](#)



OLENTZERO ETA MARI DOMINGIREN ETORRERA

Urtero legez, Olentzero eta Mari Domingiren etorrera ospatzeko aukera izan genuen. Osasun neurriak barne, HHko haurrek Olentzero eta Mari Domingiren bisita jaso zuten abenduaren 23an. Bertan eskutitzak jaso eta agurtu ondoren abesteari ekin zioten. Besteen artean, kidezkeak antolatu ziren maila ezberdinen artean, elkarri Gabon abestiak eta bertsoak kantatuz. Egun polita eta ilusioz beterikoa izan zen. Hemen [bideoa](#) ikusgai.



OHIKO ASANBLADAK



Anoetako Herri Ikastolak eta Irurako Ikastolek Ohiko Batzarrak gauzatu zituzten. Ikastolako zuzendariak eta lehendakariak eraman zuten aurrera. Honako gaiak landu ziren: 2020-2021 ekitaldiko jarduera ekonomikoari oniritzia; hurrengo lau ikasturteetako plan estrategikoaren aurkezpena eta onespina, eta berritasun modura, Anoetako Herri Ikastolak Guraso Kooperatiba izateko Kooperatiba Integrala izateko onarpena.



IGERIKETA KANPAINA ABIAN JARRI GENUEN LHKOENTZAT



Aurreko ikasturtean COVID dela eta bertan behera geratu zen Igeriketa kanpaina, ikasturte honetan martxan jarri da. Abenduan hasi ziren LH1etik 4ra bitarteko ikasleak egunero Villabonako piszinara joaten ikastaroa jasotzera. Ikasleekin batera irakasleak ere bertan izan ziren. Ikastearekin batera ondo pasatzeko aukera zuten!



ESKOLA KIROLA GURE IKASLEEN HEZIKETAREN PARTE

Urtero bezala, gure Ikastoletako ikasle asko ibili dira ikasturte guztian zehar Eskola Kirolean. Aurtengo ikasturterako aurreikusitako ekintza guztiak gauzatu ahal izan ditugu, zorionez pandemia garaiko neurriak atzean utzita. Ikasleek balorazio ona egin dute eta begiraleak ere gustora gaude egindako lanarekin. Bi urte zail horien ondoren, lan asko egiteko prest gaude, Eskola Kirolak indarra berreskuratu eta hauspotu dadin.

Oso garrantzitsua da gizakiok ohitura osasungarriak izatea eta zentzu horretan jardura fisikoak eta kirolak asko laguntzen dute. Ikasleak ume-umetatik kirolaren bueltan bizitzera ohitzen baitugu, erraza izango da etorkizunean bizimodu aktiboa izatea. Horretarako ordea, ezagutza eta dibertimendua kontzeptu gakoak dira. Lagunekin kirola praktikatu ondo pasatzea da Eskola Kirolaren helburuetako bat eta ahalik eta kirol modalitate gehien probatzea beste helburu garrantzitsu bat.

Ostiralean Ikastolako atea isten direnean jardura eten edo gelditu egiten dela iruditzen bazaigu ere, gure ikasle asko eta asko Ikastolako kamisetarekin Tolosaldeko herrietan barrena dabilta kirolen batean gustora. Ez dugu ahaztu behar, ume asko mugitzen dela Eskola Kirolean eta hori ere heziketaren beste atal bat dela. Izan ere, kirolak eta lagun artean ibiltzeak gauza asko ikasteko aukera paregabea eskaintzen baitie gure ikasleei. Eskola Kirolak ere jartzen du, beraz, heziketa integral baterako bere alea.

Astero astero seme-alabekin atzera eta aurrera guraso asko ibiltzen da, Eskola Kiroleko hitzorduaren arabera familiako planak birmoldatu eta puzzlea ahalik eta ondoen osatuz. Hemendik, eskerrak eman nahi dizkiegu guztiei, beraien laguntzarik gabe ezinezkoa izango litzatekeelako proiektu hori gauzatzeko.



SAHARARAKO JANARI BILKETA

Urtero bezala, Saharako janari bilketari ekin genion bi Ikastolek. Otsailaren 4a luzatu zen eta bertan lekaleak, hegazuak eta sardinak oliotan, pasta, arroza, azukrea, olioak, konpresak, haurrentzat eta helduentzako pixoihalak eta eskola materiala bildu genituen. Dena antolatu ondoren lehen bait lehen saharar errefuxiatu kanpamentuetara bidali genuen, hango biztanleen artean banatu zezaten. ZORIONAK DENOI eta MILA ESKER!!

JANARI BILKETA

OTSAILAREN 4arte

-ARROZA	-PASTA
-LEKALEAK	-AZUKREA
-OLIOA	-...
-ATUNA ETA SARDINAK OLIOTAN	
-KONPRESAK	-PIXOIALAK

MENDEBALDEKO SAHARA



1975etik Mendebaldeko Sahara, Marokoren okupaziopean dago eta Sahararrak erbesteratze egoeran bizi dira. Giza eskubideen urraketa eta harrisi militar baten zatiketa dira beraien errealitatea. Ondorioz, 120.000 lagun Tindoufen (Argelien) kokatzen diren errefuxiatu-kanpamentuetan bizitzera behartuta izan dira. Bertako baldintzak oso gogorrak dira: desertua, udan 60tik gorako tenperatura, elikadura eta ur eskasia... Kanpo laguntza bizi dira.

Horregatik egiten ditugu beste ekintza askoren artean, janari eta material ezberdinen bilketak eta udan 2 hilabetez haur Sahararrak ekartzeko "oporrak bakean" programa. Saharar herriaren inguruko informazio gehiago nahi baduzu, jar zaituzte gurekin harremanetan.

- Web: tolosaldeasahararekineikarte.eus
- Email: tolosaldeasaharareki@gmail.com
- Instagram: [@tolosaldeasahararekin](https://www.instagram.com/tosaldeasahararekin)
- Twitter: [@saharabizi](https://twitter.com/saharabizi)
- Facebook: [Tolosaldea Sahararekin](https://www.facebook.com/Tolosaldea-Sahararekin)

URTARRILA

AURREMATRIKULAZIOA

Bi Ikastoletan 2022-2023rako aurrematrikulazio kanpaina urtarrilaren 17tik 28ra martxan jarri genuen. Familia berriei Ikastolak ezagutzeko aukera eskaini zitzaion. [MATRIKULAZIO KANPAINA](#)



KOMUNIKAZIO EZ BORTITZA FORMAZIO SAIOAK

Aurreko ikasturteetako arrakasta ikusita, Anoetako Herri Ikastolak eta Irurako Ikastolak, Guraso Eskolaren barruan Nerea Mendizabalen formazio saioak eskaini genituen. Aurteangoan hiru saio izan dira, otsailaren 22an, martxoaren 29an eta apirilaren 26an, 15:00etatik 16:30era, Anoetako Herri Ikastolako musika gelan. Bi Ikastoletako irakasleak ere formakuntza jasotzen aritu dira urtean zehar hainbat saio burutuz.



SEXUNE IKASTARROAK HIRI ETA LHKO IRAKASLE ETA IKASLEENTZAT

Hilabete honetan zehar SEXUNEren saioek tokia izan dute Anoetako Herri Ikastolan eta Irurako Ikastolan. Irakasleek oso modu ludikoan, ipuinen bitartez gaia eta balore ezberdinak lantzen aritu ziren. Irakasleek ere, ildo beretik, formazio saioak jaso zituzten. [Argazkiak](#)



SANTA AGEDA

Bigarren ikasturtea segidan Santa Ageda bezpera modu berezian ospatu dugu. Herrira kantu eskean atera ez, baina Ikastolan bertan abestu ditugu koplak, azken egunetan lanketa egin ondoren.

Kopla berriak eta urteroko abestiak gogoratzeko tartea izan genuen. Hemen [bideoa](#).



INAUTERIAK

Aurtengo Ostegun Gizona ospatzeko aukera ere izan dugu bi ikastoletan. Anoetako Herri Ikastolan LANBIDE gaia aitzakiatzat hartuta, ikasleek eta irakasleek gelak modu dotorean apaindu, gela bakoitzak aukeratutako ofizioaren antzezpena egin eta denek elkarrekin koreografiak dantzatu zituzten.

Irurako Ikastolan aldiz, urtero bezala, jaialdia frontoian ospatu genuen, gurasorik gabe bada ere. Aurten, IKASTURTEA gaia aitzakiatzat hartuz gela bakoitza urteko hilabete batek ordezkatu zuen eta urduritasun eta ilusio handiz ospatu genuen egun hori. Hona hemen Irurako Ikastolako Inauterietako bideoa. Egindako antzerki eta dantzen bideoa [hemen](#) duzue.

Bietan Txistorra eta halal pintxoei ere bere tokia egin zitzaion eta Ikastolako patioan jan egin zituzten.



TINKO ZINEMA EUSKARAZ HHKO IKASLEENTZAT

TINKO Zinema Euskaraz kanpainaren barruan HHko ikasleek euskarazko filma ikusteko aukera izan zuten. Egoera berezi honen eraginez, Anoetan Ikastolaren ondoko auditorioan egin ziren proiektzioak eta Iruran aldiz (API-RILEAN) Ikastolako Areto nagusian. Euskarazko pelikula entzuteko aukera izan zuten gure ikasle gazteenek. Ipuin herriko berriak eta KoKo txiki filmak ikusi zituzten, gustuko ekimena izaten da beraientzat.





EMAKUME LANGILEAREN EGUNA

Urtero bezala Irurako Ikastolak eta Anoetako Herri Ikastolak bat egin zuten aurtengo Martxoak, Sarekin. Mikro-matxismoa, egun entzuten ditugun abestietan emakumearen erabilera sexista azpimarratu eta hausnartu, emakumearen balioa agerian jarri, marrazkiak margotu, ipuinak kontatu...izan ziren landutakoak, besteak beste..



ZIBERSEGURTASUNA IKASTAROA



Martxoan, bi Ikastoletako gurasoentzako Zibersegurtasuna saioa antolatu eta aurrera eraman genuen. Bertan, Cybersecurity Basque Centre-ko aditu baten laguntzarekin, etxeetan gure ikasleek mugikorren zein erabilera egiten duten hausnartu eta modu zuzenean erabiltzeko jarraibideak azaldu zituen, betiere gurasoen iritziak eta bizipen propioak kontutan hartuz. Kontrola eta prebentzio kontzeptuak aldiro azpimarratu ziren. Arazoa bada, eta ez bakarrik gazteengan, mugikorrekiko oro har dugun dependentzia.

Bi ikastoletan irakasleei zuzendutako saioak ere jaso ziren. Mobilaren erabilera ezagutzeaz aparte, nola eragin genezakeen erabilera hori arrazionalago izan dadin hainbat jarraibide ere proposatu zieten. Aztertu ziren gaiak gehiegizko erabilera, desinformazio eta albiste faltsuak, komunikazioa bera, grooming; ... izan ziren.

INFINITU IRRIBARRAKO PARTAIDEAK IZAN GINEN.

Ibarrako Ikastolak aurten antolatu duen KILOMETROAK 2022 festaren barruan ekimen berri bat jarri zuen martxan INFINITU IRRIBARRA izenekoa. Tolosaldean, Euskal Herrian eta munduan zehar Euskara eta Euskal Herriaren aldeko irribarreak biltzea zuen helburu. Aplikazio bati esker, argazki eta mezuen bidez euskararen presentzia munduan zehar kokatzen saiatu zen.

Irura eta Anoetako LH4 LH5 eta LH6ko ikasleak, Ibarra ezagutzera joan ziren, Milimetroak ekimenaren barruan. Bertan, Ibarrako zenbait bitxikeria ezagutzeaz gain, Ibarrako lagunak ere ezagutu genituen, egun polita konpainia politean!



TINKO ZINEMA EUSKARAZ HHKO IKASLEENTZAT

TINKO Zinema Euskaraz kanpainaren barruan HHko ikasleek euskarazko filma ikusteko aukera izan dute. Egoera berezi honen eraginez, Anoetan Ikastolaren ondoko auditorioan egin dira proiektzioak eta Iruran aldiz (APIRILEAN) Ikastolako Areto nagusian. Euskarazko pelikula entzuteko aukera izan dute gure ikasle gazteenek. Ipuin herriko berriak eta KoKo txiki filmak ikusi zituzten, gustuko ekimena izaten da beraientzat.



DBHKO KURTZO AMAIERAKO IRTEERAK

Apirilaren azkeneko astean Anoetako Herri ikastolako DBHko ikasleek ikasturte bukarako bi egunetako irteerak egin zituzten: DBH1ekoak Sarriara, DBH2koak Aibarre-rra, DBH3koak Elizondora eta DBH4koak 5 egunez Salouera.



22. KORRIKA JAIA OSPATU GENUEN IKASTOLAN ETA HERRIAN

Irurako eta Anoetako Ikastolako ikasle, guraso eta irakasleok KORRIKAREN furgonetarekin bat egiteko prestatu ginen, euskararen alde denok korrika egiteko. Aste horretan, geletan modu batez edo besteaz KORRIKA jaia landu genuen: lekukoaren ibilbidea egunero jarraitu, kantak entzun, aurtengo bideoklipa ikusi, petoak margotu, kahoot-ean jolastu, ... Denok gogotsu hartu genuen aurtengo 22. edizioa aurrekoa ezin izan baitzen posible izan. Eus-kara Elkarteko ikasle batzuk izan ziren lekukoa eramán zutenak zati batez. Irurako Ikastolak aldiz, KORRIKA 22ko lekukoa okindegitik Irura eta Anoetako zubi erdira bitarte hartu zuen, Imanol Agirre lehendakariak eta HH2ko Unax Gibelalde eman zutelarik. Egun horietan unitate didaktiko berezia landu zen gelan; besteak beste, Korrikalaria-rekin argazkia, ipuina, dantza, eskulana eta mezu sekretua landu zituzten. Hemen ikusgai [bideoa](#) eta [argazkiak](#).



AGENDA 2030

Anoetako Herri Ikastola eta Irurako Ikastolako Agenda 2030eko ordezkariak udaleetan bildu ziren Garapen Jasangarriko Helburuen inguruan aritzeko. Bertan, ikasturtean herrietako basoen inguruan egin zituzten lanketak aurkeztu zizkieten udal ordezkariari eta zenbait konpromiso hartzeaz gain, proposamen ezberdinak ere luzatu zizkien. Guzti horretan, Tolosaldeko Ingurumen Zentrokoen gidaritza izan zuten.



MAIATZA

BERTSO ESKOLA

LH5-6 mailako ikasleek bertso-lantzen egitasmoaren barruan bertso emanaldia ospatu zuten. Bertan, Amaia Agirreren laguntzaz, bat-batean aritu ziren eta bertso sorta ederrak utzi zizkiguten. Ikasturtean zehar astero-astero aritu dira bertso-lantzen eta saio honenkin aurtengo ikasturteari itxiera eman zieten.



MILIMETROAK IBARRAN

Bi Ikaskoletako LH6. mailako ikasleak Ibarra izan ziren Milimetroak ekimenean parte hartzen. Bertan, Tolosaldeko ikastolez gain, aurten ikastolen jai antolatuko duten, Araba, Bizkaia, Nafarroa eta Iparraldeko ikastolekin elkartu ziren. Egunean zehar jolasak egin zituzten eta amaiera flashmob batekin eman zioten. Aukera bikaina izan zuten ikasleek ikastolen jaiaren inguruan eta inguruko herrialdeetan bizi duten egokien berri izateko.

Jende berria ezagutzeko topaketak izan ziren. Eskerrik asko antolatzaile eta gidaritza eman duten guztiei!!! [klik hemen.](#)



IRTEERAK
IRURAKO
IKASTOLA
HH-LH



HERNIALDE. 2 URTE



AKUARIUM. HH2



AKUARIUMA



HERNIALDE. HH



ORIO. IIK



AKUARIUM. HH3



ZARAUTZ



ORIO. IIK



ORIO. IIK



ZARAUTZ



ZARAUTZ. LH



ZARAUTZ. LH5



LOATZO. LH



AKUARIUM. HH1



ZARAUTZ. LH6

**IRTEERAK
ANOETAKO
HERRI IKASTOLA
HH-LH**



IRURAKO IKASTOLAREN EGUNA

Aurten, ohitura onak berreskuratuz ohiko moduan ospatu genuen Ikastolako eguna, denak elkarrekin. Goizean zehar mendi irteera eta kalejiran ibili ostean, paella ederra dastatzeko aukera izan genuen. Arratsaldean aldiz, bingoa, aurpegi margoketak eta amaiera emateko DJ Bullen eskutik dantzaldi saio ederra egiteko aukera paregabea izan genuen. Aspaldiko partez giro ederrean ospatu genuen eguna!!!! Eskerrik asko guztioi!!!!



ANOETAKO HERRI IKASTOLAREN EGUNA

Hilaren 5ean Anoetako Herri Ikastolak bere urteroko festari ekin zion. Egunaren nondik-norakoak hemen bildu ditugu:

- **Ibilaldi neurtua.** Ikastolako LH eta DBHko familiek inguruko txokoak taldean ezagutzeko aukera aparta izan zuten.
- Plazatik Ikastolara **kalejiran** etorri ziren HHko ikasle eta familiak. Azpimarratu ikasle zaharrenek eta irakasleek osatutako musikari taldeak ibilbidea alaitu zuela.
- HH eta LH1-2ko ikasleen **emanaldia** Ikastolaren patioan. Betiko kolore eta alaitasuna ez zen faltan bota.
- Arte-lanen eta teknologiako proiektuen **erakusketa**. Guraso eta ikasleen joan-etorria handia izan zen.
- DBH 4ko **ikasle eta familiei agurra**. Ikastolan egin duten ibilbidearen amaiera eman genion.
- **Bazkarian** inoiz baino bazkaltiar gehiago, 581 lagun.
- **Bingo musikatuan** aritu ginen bazkadu ostean.
- **Jolasak eta tailer ezberdinak** antolatu ziren DBH4ko ikasleen laguntzaz.

Lagun askoren lana behar izan dugu hori guztia txukun atera zedin eta eskertzekoa da guraso, ikasle eta langileek eskainitako prestutasuna. Argazkiak [hemen](#)





Badira urte batzuk Anoetako Herri Ikastolan emandakoak, ezta? Zein etapatan?

Mariaje Elizegi. Bai. Urte asko HHn aritu nintzen, gero LH lehenengo ziklora pasa nintzen eta azkeneko bi ikasturteak bigarren zikloan ibili naiz. Azken aldi berriz, bi urteko gelan.

Eleni Arregi. 42 direla esango nuke. Haur Hezkuntza hasi nintzen lanean eta urte batzuk etapa honetan aritu ondoren, LHra pasa nintzen, hirugarren, laugarren eta bosgarren mailetan hainbat urte pasa nituen. Nire semeari nirekin gelan egotea tokatzen zitzaionean, biontzat hobea izango zela aldatzea erabaki nuen eta berriro HHra itzuli nintzen, gaur arte.

Arantxa Dorronsoro. Bai, urte asko. 1983. urtean ordezkapen bat egiten hasi nintzen eta harrezkero bertan jarraitu dut. Gehienbat LHko 1. zikloan aritu naiz, baina gutxiago bada ere, beste maila batzuetan ere jardun dut.

Emandako urte guzti horietan ziur nago zerbaitekin geratuko zarela. Zerbaitek ziur bete zaitula. Zerk?

M.E. Bai. Azken ikasturtea bi urteko haurrekin aritu naiz. Ezerren truke zenbat eskaintzen duten harrigarria da. Ahaztuko ez dudana eta lagungarria izan den ikasturtea izan da.

E.A. Dudarik gabe haurrekin eguneroko

jardunean sortzen den harreman horrekin, beraiek ematen duten gozotasunarekin, itsurakeriarik gabe azaltzen dizkiguten benetako sentimenduekin, "espontaneidadarekin"...

A.D. Gauza asko izan dira bete nautenak, baina bat azpimarratuko nuke: hainbeste urte Anoetan aritzeak, jende asko ezagutzeko aukera eman dit, guraso, ikasle zein lankide. Pentsa, lehen ikasle izan nituen asko azkenaldian guraso edo lankide ditut!

Hain gusutukua izan dena Ikatolaren ibilbidean eta ikasteko balio izan dizuna?

M.E. Adin desberdinetakoekin lana egitea. Niretzat oso aberatsa izan da.

E.A. Ikasi dudana izan da, ikasle eta irakaslearen arteko harremanak funtziona dezan, guk inplikatu behar dugula gure benetako emozioak azalduz.

A.D. Gazte hasi nintzen eta esan daiteke hemen formatu naizela pertsona eta profesional bezala.

Plazako garai haietatik zer berreskuratuko zenuke eta oraingo garaitik zer eramango zenuke garai haietara?

M.E. Garai haietan bizi zen patxada ikasleekin, gurasoekin ... ekarriko nuke.

E.A. Orduan ikastola askoz ere txikiagoa zen (ikasleak, gurasoak, irakasleak) eta antolaketa errazagoa. Familien inplikazioa handiagoa eta harremana denon artean estuagoa. Gure gaztetasunak indarra eta ilusio handia ematen zigun. Oraingo garaitik ditugun baliabideak eramango nituzke hasierako garaietara.

A.D. Garai haietatik gaztetasuna ekarriko nuke eta garai hartara berriz, urte hauetan guztietan jaso dudana esperientzia eramango nuke.

Zure ibilbideko anekdotarik kontatuko zeniguke? Ziur gaude anekdotarik baduzula. Kontatuko al zeniguke?

M.E. Bai, noski. Hiru urte zituen ikasle honek lehenengo eguna zuen eta goiza oso gaizki pasa zuen: negar batean, paretak eta ateak joka, gizajoa ezin nuen lasaitu. Etxera joateko ordua iritsi zenean bertsoka hasi zitzaidan pozik, etxera ez zela joango esanez.

E.A. Haur bat hiru urterekin nola aritzen zitzaigun buruz ikastitako bertsoak kantatzen, aitona erakutsitakoak.

Moxtoneko Ixaxkun Alkizako eskursiora gurekin joan zenekoa. Gu autobusez eta bera bere 600 horiarekin atzetik, txanpaina ere eraman zuen han irakasleekin edateko.

A.D. Asko izan dira, baina ez naiz denak kontaktzen hasiko. Batzuk gainera hobe ez kontaktzea! karkar.

Egun ezagutzen duzun Ikastolari zer opa diozu?

M.E. Onena opari diot. Ziur nago geratzen den irakasleria gai dela ikastolak daraman ibilbidea aurrera jarraitzeko. Animo eta aurrera!!

E.A. Munduko etorkizunik hoberena. Lankideak bikainak dira eta horiek zaintzea merezi duela uste dut. Neurri handi batean ikastolak mantentzen du herriaren bizia eta orain arte aurrerantzean bizi hori bultzatzen jarraitzea.

A.D. Orain arte bezala jarraitzea, garai berrietara egokituz, euskarari bultzada emanaz eta ikasleen heziketa lehenetsiz.

Eta etorkizunera begira, zein asmo duzu?

M.E. Asmo dezente ditut: irakurtzea, ibiltzea, margotzea eta jostea. Orain horiek antolatzea falta zait.

E.A. Momentuz lasai hartu uztailetik aurrerakoa. Bizitzaren etapa berri horretan poliki-poliki moldatu helburu handirik jarri gabe momentuz. Gus-tatzen zaizkidan gauza xumeak eginez, patxadan bizi ahal dudala.

A.D. Hemendik aurrera familiari eta nire buruari eskaini nahi diot denbora.

Gure eskerrik beroenak gurean izan ditugun lankide bikain eta arduratsuei. Egin duzuen ibilbidea ez da makala izan, arrastoa utzi duzuenak zarete eta ea denon artean zuengandik jasotakoa praktikara eramaten dugun.

Aurrerantzea orain artekoa bezain zoriontsu eta oparo izatea opa dizuegu Anoetako Herri Ikastola eta Irurako Ikastolako partaide garenti-guztiok.

IRURAKO LH KOEN AGURRA

Beste urte batez LHko neska-mutilei agur esateko unea iritsi zaigu. Bertso honekin urte hauetako ibilbideren isla adierazi nahi izan diegu eta aurrerantzean zortetik oparoena opa diegu gure gazteei.

ZORTE ON KUADRILA IBILBIDE BERRI HONETAN !!!!!
IZAN ZORIONTSU!!!!

Ahal den neurrian lagundu eta bidelagun izatea irakasleon eginkizuna ta bestaldetik zortea. Ohartzerako pasatu zaigu zuekin azken urtea etzaigu oso samurra egingo gaur negarrari eustea, plazer handia izan delako zuek hazten ikustea.

ANOETAKO HERRI IKASTOLAKO DBH4 KOEN AGURRA

DBH4ko ikasleak eta haien familiak ekainaren 5ean, Ikastolaren Egunaren barruan agurtu genituen. Zuzendariaren agurrak, gereizondoaren landaketa, irakasleek dantzatutako aurrekuak, guraso, irakasle eta ikasleek elkarri emandako opariek... osatu zuten ekimena.

BAKOITZAK HARTUKO DUEN IBILBIDEAN ZORTERIK ONENA OPA DIZUEGU.

DBH4 bukatu eta jakinik azkena dela Anoetako ikastolatik jadanik bazoaztela badakigunez hori lortzeak Qlana eskatu duela benetan esan nahi dizuegu zuetaz harro gaudela.



URTEKARIA

2021
2022

